

2026AN HIRIAN INPAKTU SOZIALA DUTEN GAZTEEN PROIEKTU BERRITZAILEEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

ATARIKOA

Donostiako Sustapen Sozietateak, Donostiako berrikuntza agentzia den aldetik, 2025ean sendotu egin du hiriaren berrikuntza erreferente bihurtzeko apustua, eta lankidetzaz publiko-privatuan, zerbitzuen pertsonalizazioan eta ezagutzan intentsiboak diren sektoreetan oinarritutako ereduak izateko apustua.

Horrek esan nahi du pertsona, enpresa eta proiektu berritzaileei laguntzeko apustua egiten dela, zerbitzuen pertsonalizaziotik eta kalitatetik abiatuta, eta foku estrategikoko argi batekin, hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan arituz, berrikuntza publikoa eta ekintzaitza berritzailea indartzeko, eta hiria hub berritzaile gisa proiektatzeko.

Donostiak pasa den 2024an 189.865 biztanle izatea lortu zuen, baina hiriak erronka handiak ere baditu esparru demografikoan. Alde batetik, zahartzea azkartzen ari da hirian; Donostiako biztanleen % 26 baino gehiago 65 urtetik gorakoak dira, eta “baby boom” belaunaldia erretiro adinera iristen ari da. Eta bestetik, 35 urtetik beherako gazteek % 0,8 egin du gora 2023tik 2024ra bitartean. 2020an hasitako goranzko joera finkatu egin delarik, eta biztanleria osoaren % 33 izatera iritsi dira.

Zahartzea eta gelditasun demografikoa nagusi diren testuinguru horretan, erronka estruktural handiei aurre egin beharko diete hiriek: osasun eta zainketa sistemen gaineko presio handiagoa, pentsio sistemaren tentsioak, eta ekonomiaren dinamismoa eta ekoizpen ereduaren jasangarritasuna arriskuan jartzen dituen biztanleria aktibo murriztua.

Gauzak horrela, biztanleria gaztea da, berritzeko eta moldatzeko duen gaitasunagatik, etorkizuneko erronkak gainditzeko funtsezko eragileetako bat. Hortaz, Donostiak posizionamendu bereizi bat hartu beharko du, gure erakundearen estrategian berariaz jaso den moduan: enplegu, prestakuntza eta etxebizitza aukera errealak eskaintzea, bai hiriko gazteei, bai erakar ditzakegun talentu gazteei. Apustu estrategikoa da hori Donostia Sustapenarentzat zein hiri osoarentzat, erronka demografikoak erantzun irmo eta iraunkorrak eskatzen dituen une honetan, hain zuzen. Hiru alderdi horiei modu integralean heltzen badiegu, ingurune egokia sortuko da norbanakoek aurrera egin dezaten eta hiriko garapen jasangarriari ekarpena egin diezaioten.

Aurrekoa kontuan hartuta eta gazteek, aldaketaren eragile diren aldetik, daukaten potentziala ezagututa, Donostia Sustapenak **gazteen kolektiboak sustatutako proiektu eta ekimen berritzaileen alde** egin duen apustuaren esparruan kokatzen dira laguntza hauek, hirian edo Donostiako herritarren artean antzeman den erronka edo premia bati erantzuna emateko ahaleginean. Horrekin lortuko dena da gazteak erdigunean ipintzea, uneko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko behar diren eraldaketa sakonen protagonistak gisa.

Donostia Sustapenaren planteamendu integral horrek talentu gaztearen berrikuntza eta ekintzailtza bultzatzen dituen ekosistema dinamiko eta inklusibo bat eraikitzen lagunduko du, aldi berean tokiko ekonomiaren garapena eta gizarte ongizatea indartuz.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Laguntza honen xedea da gazteei laguntzea, proiektu eta ekimen berritzaileen bidez, hirian edo komunitatean inpaktu soziala sor dezaten, hiri inklusibo eta oparoago bat sortu eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko azken helburuarekin.

Gazteen konpromisoa, ekimena eta gaitasun eraldatzailea bultzatu nahi da, ongizate kolektiboa hobetzera bideratutako proposamen berritzaileen bidez, inklusioa eta jasangarritasuna sustatuz, eta horren ondorioz, hirian bizi-kalitatea hobetzea ekarriz.

Deialdi hau garapen edo inplementazio fasean dauden proiektu eta ekimenei zuzenduta dago, baldin eta eredu bideragarri bat aurkezten badute eta hazteko eta sendotzeko benetako gaitasuna badute. Bereziki baloratuko dira ikuspegi parte-hartzailea eta berritzailea izateaz gain, enpresa-ikuspegi jasangarria, helburu argiak, inpaktu neurgarria eta maila ekonomikoan zein sozialean balioa sortzeko potentziala duten proposamenak. Era berean, ekimenek erakutsi beharko dute gaitasuna dutela inguruneari ekarpen positiboa egiteko, benetako beharrei erantzungo dieten eta gizartean eragin nabaria eta iraunkorra sortuko duten irtenbideak sustatuz.

Era berean, laguntza honek nabarmen laguntzen du garapen pertsonalean eta komunitate ehuna sendotzen, ikaskuntzarako, partaidetzarako eta lankidetzarako espazioak sortuz.

Gazteen ahalduntzea ere sustatzen du, autonomia, lidergoa eta gizarte ingurunean eragin aktiboa izateko gaitasuna hobetzen dituzten tresna, aukera eta inguruneei bidea emanda.

Helburu horrekin jarri du abian Donostia Sustapenak laguntza hau, jarraian adierazitako jarduteko ildoekin.

- **Akonpainamendu zerbitzua:** Zerbitzu honek gazteei akonpainamendua eta tutoretza eskaintzen die, beren proiektu edo ekimenak garatzeko prozesuan laguntza emate aldera. Akonpainamenduaren hasieran, laneko libilbide Orria zehaztuko da, erdiesteko helburuak eta garatzeko mugarriak jasoko dituen. Horrez gain, dedikazioa eta proiektua garatu edota abian jartzeko ezarritako epeak zehaztuko dira.
- **Proiektu edo ekimen berritzailea laguntzeko laguntza ekonomikoa:** Zuzkidura ekonomikoaren helburua parte-hartzaileei erraztasunak ematea da proiektuaren garapenean murgildu daitezen. Era berean, proiektua gauzatu edo abian jartzearekin lotutako gastuak estali nahi dira, gastu horietarako ematen baita laguntza.
- **Lan-eremuetarako sarbidea:** Donostia Sustapenaren instalazioetan lan-eremuren bat eskuratzeko aukera, bai proiektua garatzeko, bai proiektua ezagutzera emateko.

-
- **Ostatua / etxebizitza:** Donostia Sustapenak kudeatutako eraikinetako batean ostatu hartzeko aukera, hala EKINN izenekoan nola Talent House eraikinean.
 - **Lehentasunezko sarbidea** Donostia Sustapenak antolatzen dituen proiektuak azkartzeko prestakuntza ekimenetan eta programetan.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak HOGEI MILA (20.000) euro bideratuko ditu laguntza honetara. Zenbateko hori aldatzea gerta liteke, Donostia Sustapenak egokitzat jotzen badu.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduna izango da laguntzaren esleipenaren oinarria izan zen jarduera egingo duen pertsona edo esleipena legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona, betiere Oinarri hauetan eta, bereziki, laguntza mota bakoitzean xedatutako baldintzak betetzen baditu.

Laguntzen onuradunak pertsona fisiko edo juridikoak izan ahalko dira, publikoak edo pribatuak, nazionalak edo atzerrikoak, eta baita aurreko kasuetako nortasun juridikorik gabeko taldeak ere, behar bezala eratu badira ordenamendu juridikoaren arabera eta Oinarri hauetan xedatutakoa betetzen badute. Kanpo geldituko dira 2/2014 Foru Arauak, urtarrilaren 17koak, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergarenak, 14. artikuluan definitzen dituen ondare sozietateak.

Oinarri hauetan ezarriko dira egokiak diren laguntzak eskatzeko bete beharreko baldintzak eta horiek betetzen direla egiaztatzeko moduak. Edonola ere, Dirulaguntzen Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan xedatutakoa bete beharko da, ondore hauetarako aplikagarria dela berariaz adierazita.

Ez zaie laguntzarik emango egoera hauetan dauden pertsona fisiko edo juridikoei:

- Indarrean dauden xedapenek zergen eta/edo Gizarte Segurantzaren arloan ezartzen dituzten betebeharrak egunean ez izatea.
- Ebazpen irmo bidez jasotako zigorraren ondorioz dirulaguntzarik eta/edo laguntza publikorik jaso ezin izatea, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren bat izatea, horren barne direla 1/2023 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera sexuagatiko diskriminazioa egin izanagatik zigorra jaso dutenak. Halaber, ezingo da laguntza jaso pertsona fisikoak edo onuradunak administrazio edo zigor arloko zigorra jaso badu sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik edo emakume eta gizonen berdintasunerako araudia ez betetzeagatik, dagokion zehapenean ezarritako epean zehar. Era berean, ezingo dute laguntza edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera indarreko berdintasun plan bat izan beharko luketen eta ez duten enpresek, ez eta 50 langiletik gora izanda, sexu jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri izana egiaztatzen ez dutenek, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Estatuko legerian ezarritako baldintzetan.
- Donostiako Udalarekin edo Donostia Sustapenarekin zorrak izatea.
- Aldez aurretik emandako laguntzak itzultzeke izatea, erabat edo partzialki, itzuli beharreko zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen ez den bitartean.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea izango dute dagoeneko Administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein Administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko. Horrez gain, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo bildu ahalko ditu, interesdunak horri aurka egiten ez badio. Aurka egitekotan, berriz, ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzakoa den elkarreragintasan aplikazioaren bidez, Administrazio Publiko eskudunei kontsultatuko die zuzenki jarraian adierazitako informazioa, prozedura honen ebazpenerako eta ordainketetarako:

- Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.

Dirulaguntza eskatzeko momentuan eta ordainketa bakoitza egiteko momentuan Udalaren, Foru Ogasunaren eta/edo Gizarte Segurantzaren diru bilketarekiko egunean ez dauden onuradunek HAMAR (10) egun baliodun izango dituzte, jakinarazpena jasotzen dutenetik, obligazio hori bete izana egiaztatzeko.

4. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Hauek dira programan parte hartzeko betekizunak:

- a) Eskabidea egiten duen pertsonak **35 urtetik beherakoak izan beharko dira** eskaera egiten duten momentuan. Proiektu edo ekimena pertsona talde batek sustatzen badu, 35 urtetik beherako pertsona erreferente bat hautatu beharko dute laguntza eskatzeko.
- b) **Donostiako hirirako edo herritarrentzako inpaktu soziala sorrarazten duen proiektu edo ekimen berritzaile** bat aurkeztea.
- c) Gutxienez ere **goi mailako unibertsitate gradu edo goi mailako heziketa zikloko titulazioa izatea edo ikasten aritzea**. Garatuko den sektoreko edo jarduera eremuko espezifikokoak diren bestelako prestakuntzak ere prestakuntza kualifikatutzat jo daitezke.
- d) Eskatzaileak **konpromisoa hartzea proiektu honen garapenerako** Ibilbide Orrian eskatzen den eta adosten den denbora eskaintzeko, gehienez ere 12 hilabetez, proiektuarekin lotutako pertsona batek edo hainbatek burututa, eta gutxienez, hilean 60 orduko dedikazioz. Proiektuaren iraupena proiektuaren garapenaren eta inplikaturako pertsonen dedikazioaren arabera aldatu ahal izango da, baita beste arrazoi batzuegatik ere.

5. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO PROIEKTUEN BETEKIZUNAK

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, aurkezten diren proiektuek Donostiako hirian edo herritarrengan identifikatu den behar bati erantzun behar diote. Hirian inpaktu soziala duten, herritarren ongizatea hobetzen duten eta, aldi berean, hiria eraldatzeko berrikuntza, jasangarritasuna eta kohesioa sustatzen dituzten ekimen berritzaileak izan behar dira.

Gainera, enpresa-eredu iraunkorra islatu behar dute, helburu zehatzak dituen, emaitza ebalagarriak sortzeko gaitasuna duena eta arlo ekonomikoan zein sozialean balioa emateko ahalmena duena.

Erreferentzia helburuetarako, hona hemen proiektuekin jorratu daitezkeen zenbait arlo:

- **Hiriko erronkei erantzuteko berrikuntza** proiektuak: gizarteko edo komunitateko arazoei sormenezko irtenbide jasagarriak bilatzeko proiektuak, pertsonen bizi kalitatea hobetzea eta ongizate kolektiboa sustatzea helburu dutenak. Horrelako ekimenak zenbait arlotan garatu daitezke, hala nola hezkuntza, osasuna, enplegua, etxebizitza, hiri ekonomia, etab.
- **STEAM bokazioak** sustatzea: gazteek STEAM diziplinetan interesa jarri eta parte hartzea estimulatzeko proiektuak, horretarako trebetasun berritzaileak eta pentsamendu kritikoa sustatuz, etorkizuneko erronkei aurre egiteko.
- **Zientzia sozializatzea**: ezagutza zientifikoa hedatu eta trukatzeko proiektuak, ezagutza horri balio sozial eta kulturala emanez, herritarren partaidetza sustatuz eta gizartean inpaktu positiboa sortuz.

Aipatu arloez gain, intereseko beste esparru batzuk jorratzen dituzten proiektuak ere kontuan hartuko dira.

Aurkezten den proiektuak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Proiektua Donostian gauzatu behar da eta eskalatzeko eta beste testuinguru geografiko batzuetan errepikatzeko potentzial nahikoa izan behar du, tokiko ezarpen fasea amaitutakoan.
- Proiektua eskuragarri dauden baliabideekin gauzatzeko modukoa izan behar da, eta ekintzen, denboren zein kostuen plangintza argia izan beharko du. Horretarako, aurkezten den memoria deskribatzaile teknikoan bilduko dira 10. artikuluan adierazitako alderdiak.
- Sormenezko irtenbide berriak proposatu beharko ditu, edo unekoak hobetu, betiere proiektuan identifikatu den erronkari erantzuna emanda.
- Jarduera garatzeko indarreko araudi guztiak errespetatu beharko ditu.
-

6. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Hautatzen diren proiektuek laguntza eta zerbitzu hauek jasoko dituzte:

1. LAGUNTZA EKONOMIKOA

Proiektuaren garapenean aritzea errazteko zein berau gauzatu edo abian jartzearekin lotutako gastuak estaltzeko laguntza ekonomikoa, gastu horiek estaltzeko ematen baita laguntza.

Gazteek bultzatuta, gizartean inpaktu positiboa izango duten ekimenak abian jartzea sustatzeko helburuarekin, deialdi honetan hilean **500 euroko** laguntza ekonomikoa/esleipena

ezartzen da, gehienez ere 12 hilabetean zehar. Horrek aukera emango die pertsona onuradunei beren proiektuak behar bezala garatzeko beharrezkoa den denbora eta eginahala eskaintzeko.

Donostia Sustapenak proiektuaren jarraipena egingo du hileroko, akonpainamendu-prozesuaren hasieran egindako Ibilbide Orrian ezarritakoarekin bat etorritik, aurrerapen-maila eta zehaztutako helburuen betetze-maila ebaluatze aldera. Bai ibilbide-orria definitzean, bai hileko segimenduan, Donostia Sustapenak proiektuaren iraupena aldatu ahal izango du, horrek esleitutako hilabeteroko doikuntzan eragin dezakeelarik.

Diruz laguntzeko moduko gastuen % 100 estaliko du gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak, proiektu bakoitzeko **2.000 eurora arteko mugarekin**, laguntza jaso duen proiektua edo ekimena abian jarri eta garatzearekin lotutako gastuak ordaintzeko.

Proiektu bakoitzeko gehieneko laguntza, hileroko esleipena eta gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikoa barne, **8.000 eurokoa** izango da.

2. AKONPAINAMENDU-ZERBITZUA

Hautatzen diren proiektuei akonpainamendu-zerbitzua eskainiko zaie. Zerbitzu horren helburua izango da gazteei proiektua garatu bitartean akonpainamendua eskaintzea. Horrela, parte hartzaileen gaitasun tekniko, estrategiko eta kudeaketa gaitasunak hobetu nahi ditugu, hirirako edo komunitaterako inpaktu positiboa ahalik eta handiena izan dadin.

Horrez gain, baliabideak, prestakuntza espezializatua, aholkularitza pertsonalizatua eta lankidetzaren sareak jarriko dizkiegu eskura, esperientzia trukea eta ikaskuntza kolektiboa sustatuz. Akonpainamendu integral honekin lotu nahi dena da proiektuen bideragarritasun, jasagarritasun eta eskalagarritasuna bermatzea, gazteen berrikuntza sozialerako ingurune egokia sortuz, garapen pertsonal eta komunitarioan lagunduz, eta talentu gazteak ahaldunduz.

Programa hastean, parte hartzaile guztiek banakako tutoretza bat izango dute ibilbide orria elkarrekin diseinatzeko, eta hor zehaztuko dira lotu beharko diren mugak eta helburuak eta Donostia Sustapenak eskura jar ditzakeen zerbitzuak.

3. PRESTAKUNTZA ETA PROGRAMETARAKO LEHENTASUNEZKO SARBIDEA

Lehentasunezko sarbidea Donostia Sustapenak antolatzen dituen proiektuak azkartzeko prestakuntza ekimenetan eta programetan.

Donostia Sustapenak aukerak sortzen ditu gazteen garapena eta hobekuntza profesionala sustatzeko, eta laguntza eskaintzen dugu inpaktu sozial eta ekonomiko positiboa sortzeko potentziala duten ekimen berritzaileak eraldatzeko eta sendotzeko.

Berrikuntza eta ekintzaitzaren arloetako prestakuntza programetarako lehentasunezko sarbidea eskaintzen dugu. Programa horien helburua parte hartzaileei konpetentziak ematea da, zehazki, proiektuak garatzeko eta hazkunde profesional eta ekintzailerako behar dituztenak Gainera, proiektuek lehentasuna izango dute Donostia Sustapenak bultzatutako

beste deialdi batzuetan, baldin eta deialdi bakoitzerako baldintza, betekizun eta betebeharrak espezifikoki betetzen badituzte.

Halaber, fase aurreratuago batean dauden eta enpresa ekimen jasagarrietarantz eskalatzeko potentziala agertzen duten proiektuentzat, Donostia Sustapenak eskura jarri du Ekintzaileen Arretarako Bulegoa. Zerbitzu espezializatu horrek aholkularitza integrala eskaintzen du, erakundeak antolatzen dituen ekintzaitza eta azelerazio programetarako lehentasunezko sarbidearekin batera, enpresa ekimen sortu berriak finkatzen, haziarazten eta zabaltzen laguntzeko.

4. LAN EREMUETARAKO SARBIDEA

Laguntza honen onuradunek lan egiteko eremuak eskatu ahal izango dituzte Donostia Sustapenak dituen instalazioetan.

Kontzeptu hori esleitzea eskaeraren momentuan erabilgarri dauden eremuen mende geldituko da.

Donostia Sustapenaren eraikinetako batean lan eremu bat esleitzen bazaie, erabilera hori doakoa izango da programak iraun bitartean. Dena den, ezarritako baldintzak bete beharko dira, batez ere ordutegiei eta funtzionamendu arauari dagokienez.

Hasierako tutoretzan adostuko dituzte eremu horiek erabiltzeko baldintzak Donostia Sustapenak eta onuradunak.

Erabilgarri daudenak baino eremu gehiago eskatzen badira, eskabidearen sarrerako erregistroaren ordenari jarraituta esleituko dira.

EKINN eta Talent House eraikinak ere doan erabili ahal izango dira proiektua ezagutzera emateko, jardunaldiak antolatzeko, lantegiak egiteko, etab., baldin eta espazioak eskatzeko momentuan erabilgarri badaude eta funtzionamendu arauak errespetatzen badira.

5. OSTATUA / ETXEBIZITZA

Hautatutako proiektuen egile diren gazteek ostatu hartu ahal izango dute Donostia Sustapenak kudeatutako eraikinetakoren batean, hala EKINN izenekoan, nola Talent House eraikinean.

Honako hauek dira ostatu-hartze horren ezaugarriak:

- Etxebizitzarako sarbidea, EKINN edo Talent House eraikinean, Donostia Sustapenak, premiarekin eta erabilgarritasunarekin lotutako irizpideei so, proposatzen dion apartamentu motan.
- Egonaldirako aukera, akonpainamendu-zerbitzuaren hasieran zehaztutako mugarriak betearen arabera.
- Alokairuaren kostuan %100eko hobaria lehenengo urtean eta %60rainoko hobaria bigarren urtean.

Zerbitzu hau erabili ahal izateko, programan parte hartzen duen pertsonak **EKINN Alojamiento** laguntzan egin beharko du eskaera eta deialdi honetako baldintzak eta betebeharrak bete beharko ditu.

Programan parte hartzen duten pertsonak hura garatzen den bitartean deialdian adierazitako helburuak betetzen ez badituzte, Donostia Sustapenak aukera izango du programa horretatik kanpo utzi eta, berehala, alokairu-kontratua eteteko (jakinarazpen frogagarri bidez).

Hauek dira pertsonak bete beharreko baldintzak:

- Donostia Sustapenarekin alokairu-kontratua sinatzea.
- Onuradun izan den eta laguntza hauek jasotzeko aukera eman dien programaren saio guztietan aktiboki parte hartzea eta bertaratzea.
- Banku-helbideratze bidez, behin egonaldia amaituta, beharrezkoa balitz, garbiketa gehigarriarekin lotutako gastuak ordaintzea.
- Parte hartzen den programako eta laguntza-deialdi honetako betebeharrak guztiak betetzea.

Aurreko edozein betebeharrak urratuz gero Donostia Sustapenak eskumena izango du, berehala, alokairu-kontratua eteteko, ez-betetze horretatik erator daitezkeen kalteak eta galerak erreklamatzeko aukeraren kalterik gabe.

Partaidetza baliogabetzeko arrazoiak izango dira:

- Programan adierazitako mugarrak ez betetzea.
- Programa uztea.
- Alokairu-kontratuaren berezko betebeharrak ez betetzea.

7. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz laguntzeko moduko gastutzat onartuko dira, oro har, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin lotura dutenak eta Oinarri hauetan ezarritako epe barruan egin direnak. Diruz laguntzeko moduko gastuen eskuratze kostua ezingo da inolaz ere izan merkatuko balioetik gorakoa.

Proiektua gauzatzearekin zuzeneko lotura duten gastuak ordaintzeko erabiliko da laguntza ekonomikoa, besteak beste:

- Materialak erosi edo alokatzea, eta ekipamendua edo proiektua garatzeko behar diren bestelako azpiegiturak eskuratzea.
- Espazioak alokatzea.
- Proiektuan definitu diren jarduerak, jardunaldi eta ekitaldiak gauzatzearekin lotutako aseguruak.
- Proiektua garatzeko guztiz beharrezkoak diren kanpoko zerbitzu profesionalak kontratatzea, hala nola komunikazio zerbitzuak, hedapena, publizitatea edo izaera tekniko edo espezializatuko beste batzuk.

- Proiektuarekin lotura zuzena duten bidaia eta dieten gastuak; erabat justifikatu beharko da bidaiaren eta proiektuaren xedeen arteko harremana eta egikaritze epean zehar egin zirela.
- Proiektuarekin lotutako komunikazio-gastuak Horien artean sartu ahal izango dira publizitate-kanpainak, web-orrialdeen diseinua, gizarte-sareen diseinua...
- Sustapenerako materiala.
- Proiektuarekin zuzenean lotutako bestelakoak.

Ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat joko justifikatu ez diren gastu pertsonalak edo proiektuarekin loturarik ez dutenak.

Gastu guztiak behar bezala justifikatu beharko dira, eta diruz lagundutako proiektuaren helburuekin zuzeneko lotura izan beharko dute. Fakturak eta gainerako egiaztagiriak laguntzaren onuradunaren izenean egingo dira. Ez dira onartuko hirugarren pertsona fisiko edo juridikoen izenean egindako gastuen egiaztagiriak. Donostiako Sustapenak ez du baldintza hori betetzen ez duen gasturik aitortuko, ezta finantzatuko ere.

Kanpo geldituko dira mantenu gastuak, justifikatu gabeko ordainsari pertsonalak, proiektuarekin zerikusirik ez duten inbertsioak edo proiektuaren helburuekin eta epeekin bat ez datozen gainerako gastuak.

Diruz laguntzeko moduko kontzeptuak **egikaritzeko epea 2026ko ekainaren 1etik justifikazio epea amaitu artekoa** izango da. Diruz laguntzeko moduko kontzeptuen justifikazio fakturak ere epe horren barrukoak izan beharko dira.

Justifikazio fakturak ordainduta egon beharko dira laguntza justifikatzeko momentuan. Fakturak erabat ordainduta egon beharko dira, onartu ahal izateko.

Txartel bidez egindako ordainketak, banku transferentziak edo helbideratutako ordainagiriak onartuko dira bakarrik egiaztagiri moduan. Egiaztagiri horiek gauzatu den eragiketaren informazio xehatua eskainiko dute (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data, etab.) Ez dira onartuko banku mugimenduen zerrendak, ez eta BIZUM bidez egindako ordainketak ere.

8. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak, helburu bererako emandako beste edozeinekin, baldin eta Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera jaso den laguntzaren zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, ez bada diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

9. ARTIKULUA. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabideak aurkezteko epea Oinarri hauek Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzearen eta horien laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratzearen biharamunean hasiko da eta baliabide ekonomikoak agortu arte egongo da indarrean

(baliabideen agortzea Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da) edo, **agortuko ez balira**, deialdia itxi arte, hau da, **2026ko azaroaren 16ra arte**.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, funtsak gelditzen badira edo zuzkidura ekonomikoa zabaltzen bada eta Donostia Sustapenak egokitzat jotzen badu, eskabideak aurkezteko epea zabaldu ahalko da Oinarri hauen aldaketa bidez. Kasu horretan, egokiak diren kanaletan argitaratuko da.

Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus).

Bitarteko hauek erabili ezin dituzten hautagaiak harremanetan jarri beharko dira Donostia Sustapenarekin beste izapidetze moduren bat adosteko.

Eranskinak erabat bete beharko dira eta behar bezala sinatu beharko dira. Sinatu beharreko dokumentazioa digitalki sinatuko da.

Informazioa jasotzeko edo zalantzak argitzeko 943 482800 telefonora dei daiteke edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora idatz daiteke, gai hau adierazita: "Gazteen proiektu berritzaileei zuzendutako laguntza".

10. ARTIKULUA. ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskabidea egiteko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) **Eskabidearen** eranskina.
- b) "**Bankuko datuak**" **eranskina**: laguntza eskatu duen pertsonarenak, dagokion bankuaren zigiluarekin, edo banku dokumentu baliokidea.
- c) Eskatzailearen **NANaren** kopia.
- d) Eskatzailearen **titulazio akademikoa**.
- e) Proiektuaren sustatzailearen **curriculum vitae**.
- f) **Foru Ogasunarekiko** ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- g) Memoria deskribatzaile teknikoa ("Eranskina: **Memoria teknikoa**"), gutxienez ere atal hauek barne izango dituena:
 - Proiektuaren izena.
 - Beharraren identifikazioa eta erronkaren garapena. Hirian antzeman den beharraren azalpena eta horri erantzuna emateko hartutako irtenbidea.
 - Proiektuaren helburuak.
 - Prozesuan landuko diren mugarriak: Proiektua egituratzen duten funtsezko faseak (landa lana, beharren analisia, eragile interesdunak identifikatzea, datuak biltzea, etab.).
 - Inpaktu soziala eta helburuen betetze maila baloratzeko aukera ematen duten adierazleak.
 - Erabiliko diren bitarteko materialen eta giza baliabideen aurreikuspena, bai eta proiektua garatzeko baliatuko diren espazioak, beharrezko azpiegiturak, etab.

- Kronograma.
- Aurrekontua.
- Proiektua ebaluatzeko sistema.

Memoria erraz eta argi idatziko da, eta proiektua ulertzea zailtzen duten teknizismoak saihestuko dira. 12. artikuluan adierazi diren baloratzeko irizpideak balioesteko aukera ematen duen informazio argia eskainiko du. 8 orrialdeko luzera gomendatzen da gehienez.

Onuradunak bere gain hartuko du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa, bai eta aurkeztu diren gainerako dokumentuen egiazkotasunari dagokiona ere.

Eskatzaileak proiektua baloratzeko interesekotzat jotzen duen beste edozein agiri aurkeztu ahal izango du dokumentazio hori osatzeko.

Interesdun batek, Donostia Sustapenaren laguntza programa batean parte hartzeko, dokumentu horietako bat aurkeztu badu aldez aurretik, ez du berriro aurkeztu beharko, baldin eta dokumentuak indarrean jarraitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzeko momentuan Udal Zerga Bilketaren, Foru Ogasunaren eta/edo Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean ez dituzten eskatzaileek betebeharrak horiek bete izana egiaztatu beharko dute. Horretarako, Donostia Sustapenak zuzenketa jakinarazpen bat bidaliko die.

11. ARTIKULUA. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak, dokumentazio guztia berrikusi ondoren, egiaztatzen badu osatugabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari eskatuko dio akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko hamar (10) egun baliodunen epe barruan, eta ohartaraziko dio ere akatsa zuzendu ezean eskabidea kanpo geldituko dela, izapide gehigarririk gabe, horren inguruko ebazpena emanda. Donostia Sustapenak proiektuaren memoriari buruzko argibideak eska ditzake, egokitzeak jotzen badu.

Zuzenketa posta elektronikoz jakinaraziko dira onuradunak harremanetarako emandako helbide elektronikoan. (Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Jakinarazpenak web aplikazioan kontsultatu ahalko dira, espedientearen barruan.

Zuzenketa egiteko eskatu den dokumentazioa aurkezteko, hasierako eskabidea aurkezteko erabili zen kanal bera baliatuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Laguntzak ematea edo ukatzea Donostia Sustapenaren berriazko ebazpen bidez egingo da eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web aplikazioan kontsultatu ahalko dira, espedientearen barruan.

12. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

Laguntzak emateko prozedura lehia bidezkoa izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 22. artikuluan aurreikusten dena, honako printzipio hauekin bat etorritik: publizitatea, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, helburuak betetzeari dagokion eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeari dagokion efizientzia.

Lehia bermatzeko xedez, proiektuaren memoria tekniko eta ekonomikoa balizko dokumentutzat hartuko da proposamenak ebaluatzeko.

Eskaerak kanpoko adituek ebaluatu ahal izango dituzte. Aditu horiek, gainera, proiektuen gauzatze-mailaren eta onartutako gastuen gaineko jarraipena egin ahalko dute, oinarri arau-emaile hauek aplikatuz sortzen diren alderdiak ebatzi eta interpretatzeaz gain.

Diruz lagundutako jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzen duten proiektuak hautatutako ditu Donostia Sustapenak, baldin eta 60 puntu lortzen badituzte gutxienez balorazio irizpideetan eman daitezkeen puntu guztien artetik.

Aurkeztutako proiektu guztiak honela ebaluatuko dira:

- Memoria teknikoaren balorazioa (“Memoria teknikoa” eranskina), 100 puntu gehienez, eta proiektua onartzeko 60 puntu lortu beharko dira gutxienez.

Onuradun eta/edo proiektu bakoitzerako laguntza bakarra emango da.

Proiektuen ebaluazioa irizpide hauen arabera egingo da:

1. Berrikuntza eta sormena	30
<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren diseinua (aintzat hartuko dira proiektuaren aurkezpena, definitu diren helburuak, ...) eta proposamenaren originaltasun maila, bai eta irtenbide berritzaileak planteatzeko gaitasuna ere. 	
2. Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa	30
<ul style="list-style-type: none"> • Lan egitasmoaren koherentzia, aurrekontuaren egokitasuna, baliabideen erabilera efizientea eta gauzatzeko erraztasuna. 	
3. Ebaluazioa eta inpaktua neurtzea	20
<ul style="list-style-type: none"> • Hirian sortu nahi den aldaketaren irismena eta garrantzia. • Emaitzak neurtzeko adierazleen eta tresnen definizioa. 	
4. Jasangarritasuna	10
<ul style="list-style-type: none"> • Proiektua hasierako fasetik haratago luzatzeko potentziala, eta inpaktu iraunkorra sortzeko gaitasuna. 	
5. Lankidetzak	10

<ul style="list-style-type: none">• Proiektua garatzeko lankidetzak posibleak gazteen elkarteekin, hezkuntzaren esparruko eragileekin eta beste eragile edo erakunde batzuekin.	
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA GUZTIRA	100

Eskabide bat hautatzeko lortu beharko den gutxieneko puntuazioa 60 puntukoa izango da; beraz, kanpo geldituko dira hortik beherako puntuazioa lortzen duten eskabide guztiak.

Donostia Sustapenak elkarrizketa bat eskatu ahal izango du, proiektua eta sustatzaileak sakonago ezagutzeko, eta proiektuak lortu duen hasierako balorazioa alderatzeko gorago adierazi diren irizpideen arabera.

Onartutako proiektuak puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira, eta irizpide horiek aplikatuta balorazio handiena lortu duten proiektuak esleituko dira, deialdian kreditu erabilgarriaren barruan ezarritako mugarekin.

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea lau hilabetekoa izango da deialdia ixten denetik aurrera, epe horren barruan zenbatu gabe dokumentazio administratiboa zuzentzeko garaia. Laguntza emateko ebazpena ezarritako epe barruan emango ez balitz, horrek ez du esan nahiko laguntza eman denik.

Eskabidea ebazteko unean, Donostia Sustapenak aurkeztu den derrigorrezko dokumentazioa berrikusiko du. Eskatu gabe aurkeztu diren gainerako dokumentuak ez dira halabeharrez aztertuko laguntza ebaztean.

Laguntza ematea edo ukatzea Donostia Sustapenaren berariazko ebazpen bidez egingo da.

Ebazpenak eskatzaileei jakinaraziko zaizkie posta elektronikoz, eskabidearen eranskinean "jakinarazpenetarako helbide elektronikoa" gisa adierazitako helbidean. Halaber, web aplikazioan ere aurkituko dira, espedientearen barruan.

Emandako ebazpenarekiko ados ez egotekotan, alegazioak aurkeztu ahalko dira, hilabete bateko epean gehienez, ebazpenaren datatik hasita. Horretarako, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko dira interesdunak, alegazioak izapidetzeko prozeduren berri jasotzeko. Donostia Sustapenak erabakitakoa errespetatu beharko da eta bi alderdiak, egokia denean, Donostiako auzitegi eta epaitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

13. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Laguntza ekonomikoa ordaintzeko honako prozedura hau jarraituko da:

Alde batetik, 500 euroko hileroko laguntza ordainduko da Laguntza honi dagozkion ordainketak jaso ahal izateko, hileroko txostena aurkeztu beharko da. Bertan erdietsitako mugarri nagusiak eta proiektuaren aurrerapen-maila zehaztu beharko dira.

Bestalde, laguntzaren ordainketa egingo da, proiektuaren garapenean sortutako gastuen kontzeptuan. Ordainketa aldi bakarrean egingo da, azken justifikazioa aurkeztu ondoren.

Laguntzaren azken justifikazioa aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, proiektua bukatzen denetik hasita. Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) **Garatu den proiektuaren amaierako memoria xehatua**, programari esker abian jarri den proiektuaren edo jardueraren garapena azaltzen duena eta lortutako inpaktuari buruzko emaitzak biltzen dituena. Proiektuan deskribatzen diren jarduerak gauzatu izana egiaztatzeko behar diren frogak guztiak izango ditu barne: liburuxken kopia digitalak, editatu diren liburuak, gizarte saretarako edo webguneetarako estekak, etab. **Jarduera** beste edozein erakunde publiko edo pribaturen laguntza edo baliabideekin **batera finantzatu** bada, funts horien jatorria eta diruz lagundutako jarduerari egindako ekarpena ere egiaztatuko beharko dira justifikazioa egitean.
- b) **Memoria finantzarioa**, proiektuak sortu dituen gastu eta diru sarreraren (beste dirulaguntza edo laguntza batzuk) balantzea.
- c) Laguntza jaso duten gastuen **fakturak edo bestelako egiaztagiria**k.
- d) Egindako **ordainketen frogagiriak**.
- e) **Foru Ogasunarekiko** ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.

Interesekotzat jotzen den beste edozein agiri aurkeztu ahal izango da dokumentazio hori osatzeko.

Dokumentazioa bitarteko telematikoz aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak erabat bete beharko dira.

Dokumentazio guztia aztertu ondoren egiaztatuko balitz benetan jaso diren zerbitzuak ez datozela bat, neurri batean edo erabat, onartutako jarduketekin edo justifikatu diren gastuen kontzeptuekin, aldez aurretik onartutako jarduketa justifikazioei dagokien zati proportzionala bakarrik ordainduko da.

Justifikatzeko epea igarota dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, laguntzari uko egin diola eta, ondorioz, kobratzeko eskubidea galdu duela ulertuko da, edo, egokia denean, jasotako laguntzaren zatia itzuli beharko du.

14. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JARRAIPENA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUKETEN EGIKARITZEA

Diruz lagundutako ekintzen eta onartutako proiektuen jarraipena egikaritze prozesuan zehar egin ahalko da, eta baita amaitu ondoren ere.

Donostia Sustapenak jarraipen hori egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazio tekniko edo ekonomiko guztia eskatu ahalko du, egikaritze prozesuan zehar eta laguntza justifikatzean eskatzen den gutxieneko dokumentazioaz gain.

Laguntzen jarraipen eta justifikazioaren emaitzen arabera, emandako laguntzak murriztea gerta liteke, edo dirulaguntzak ez egokitzen jotzea, deialdi honetan edo hurrengoetan.

Diruz laguntzeko moduko jarduketak oinarri arautzaile hauetan adierazitako moduan eta denboran egikaritu behar dira, Donostia Sustapenak, arrazoi justifikatuekin, bestelakorik baimentzen badu salbu. Kasu horretan, emandako laguntzaren zenbatekoa ere aldatzea gerta liteke.

Jarraipenaren ondorioz ikusiko balitz erakunde onuradunari egoztekoak diren ez betetzeak edo desbideratzeak izan direla laguntza ematetik eratorritako betebeharretan, datuen faltasutze, desadostasun edo omisioak gertatu direla edo jasotako zenbatekoak, erabat edo neurri batean, laguntzaren xedeak ez diren beste xede batzuetarako erabili direla, egokiak diren legezko ekintzak abiaraziko dira, horien barne dela, kasuaren arabera, beste edozein laguntza edo dirulaguntza jasotzeko desgaiak, betiere egokia den itzulera eta berandutze interesen ordainketa betebeharra kaltetu gabe.

15. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen onuradunek Dirulaguntzen Lege Organikoaren 14. artikuluan aurreikusitako betebeharrak onartuko dituzte, ondore hauetarako berariaz aplikagarritzat joko baita, betebeharrak hauek barne hartuta (adibide moduan eta mugarik gabe):

- a) Laguntza erabiltzea diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko.
- b) Diruz laguntzeko moduko gastuen frogagiriak aurkeztea, ezarritako moduan eta epe barruan.
- c) Jasotako laguntzen aplikazioaren frogagiriak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskapen jarduketetan eskatu ahal diren bitartean eta, edozein kasutan ere, araudi aplikagarrian ezarritako epean zehar.
- d) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru sarrera guztien kontabilitatea eramatea.
- e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.
- f) Laguntzak jasotzeko kontuan hartu diren inguruabar subjektibo zein objektibo guztien aldaketa guztiak Donostia Sustapenari jakinaraztea, gehienez ere aldaketa gertatu eta 15 egun naturalen buruan.
- g) Donostia Sustapenak, bere eginkizunen esparruan, eskatzen duen emandako laguntzei buruzko informazio guztia ematea.
- h) Donostia Sustapena proiektuaren finantzatzaile gisa aipatzea laguntza jaso duten proiektuak sustatu eta hedatzeko jarduketetan, horretarako Donostia Sustapenaren irudi instituzionala txertatuz, dagokion legendarekin batera, prestatzen diren komunikazio euskarrietan (webgunea, kartelak, posta elektronikoak, etab.).
- i) Donostia Sustapenak laguntza hauen jarraipena egiteko antolatzen dituen bilera guztietan parte hartzea.
- j) Donostia Sustapenak jasotako laguntzaren inguruan antolatzen dituen jardunaldietan (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.) parte hartzea.
- k) Donostia Sustapenak, gazte talentuaren garapen profesional eta pertsonalerako aukerak sortzeko ildo estrategikoaren esparruan, antolatzen dituen hiriko gazteei zuzendutako alderaketa saioetan eta partaidetza ekimenetan parte hartzea.
- l) Donostia Sustapenak deitzen dituen ekitaldi eta jardunaldietan parte hartzea.

- m) Egokia denean, Donostia Sustapenari laguntzea finantza kontrolerako jarduketetan eta egiten dituen egiaztapenetan, haren eskura jarrita eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
- n) Laguntza jaso duen jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak edukitzea.
- o) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- p) Donostia Sustapenari jakinaraztea xede eta epe bererako jasotzen diren gainerako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo bestelako baliabideak.
- q) **EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea** (euskarari lehentasuna emanda) komunikazio euskarrietan (webgunea, gizarte sareak, posta elektronikoak, megafonia, etab.), sustapen eta hedapen materialen edizioan eta antolatzen diren jardunaldi eta ekitaldietan, etab.
Onuradunek aholkularitza eskatu ahalko diote Donostiako Udaleko euskara zerbitzuari testuak itzultzeko eta testuak zuzentzeko (itzulpenak, gehienez, hilabetean 1000 karakterekoak; eta zuzenketak, hilabetean 9000 karakterekoak gehienez), betiere zerbitzuaren betekizunak eta ezaugarriak errespetatzen badira.
(<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>)

16. ARTIKULUA. DIRUA ITZULTZEA

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunak jasotako laguntza ekonomikoa itzuli beharko du, diruaren legezko interesarekin batera, emandako zenbatekoak ordaindu diren momentutik aurrera, kasu hauetako edozeinetan:

-Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren ez betetze larri eta/edo errepikatua. Ez betetze larri eta/edo errepikatutzat hartuko da Oinarri hauetako betebeharrak bat edo gehiago ez betetzea, behin baino gehiagotan; emandako datuen, ziurtagirien, txostenen eta/edo dokumentazioaren faltsutasuna edo faltsutzea; eta/edo Oinarri hauen esparruan jasotako laguntza guztia edo horren zati bat aurreikusitakoak ez diren xedeetarako erabiltzea.

-Laguntzaren erabilera justifikatzeko betebeharra ez betetzea Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan, edo behar adina justifikazio ez ematea.

-Onuradunaren jardueraren gainean egin litezkeen egiaztapen eta ikuskatze jardueri aurka egitea, aitzakia jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, eta kontabilitate, erregistro edo dokumentuen kontserbazioaren arloetako betebeharra ez betetzea baldin eta horren ondorioz jasotako ekarpenei emandako erabilera egiaztatu ezin bada, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna egiaztatu ezin bada, edo administrazio edo erakunde publikoen zein erakunde pribatuen eskutik –nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak– xede bererako jaso diren gainerako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak egiaztatu ezin badira.

-Jardueraren gehiegizko finantzazio kasuan, emandako gehiegizko zenbatekoa.

Aurrekoa kontuan hartuta, laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzen diren betekizunak bete eta momentu oro mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak laguntzak itzultzea

eskatu ahalko du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Halaber, ez betetze kasu larrietan, esaterako, datuen faltsutasuna edo jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzea, Donostia Sustapenak ahalmena izango du emandako laguntza deuseztatzeko eta, kasu horretan, jasotako zenbateko guztiak itzultzea eskatzeko, bost aldiz jasotako zenbatekoaren baliokidea den zenbatekoa ordaintzea eskatzeaz gain.

Donostia Sustapenak Oinarri hauetan ezarritako kasuren bat gertatu dela egiaztatzen badu eta onuradunari jakinarazten badio, jarraian adierazitako baldintzetan, laguntza itzuli beharko da.

Itzulera laurogeita hamar egun naturaleko epe barruan egingo da, Donostia Sustapenak onuradunari burofax bidez jakinarazten dionetik artikuluko honetan aurreikusitako itzulera kasuren bat gertatu dela.

Era berean eta aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, Donostia Sustapenak eskubidea izango du Donostia Sustapenak eskainitako beste edozein laguntza edo onuretan parte hartzea galarazteko, BI (2) URTETAN zehar, Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat zabarkeriaz bete ez duten edo fede onaren oinarritzko arauak urratu dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

17. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Indarrean dagoen datuen babeserako araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da zeuk emandako datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun gisa jardunda. Informazioa Donostia Sustapena. sozietateak kudeatuko du, tratamenduaren eragilea den heinean.

Tratamenduaren xedea zure laguntza eskabidea izapidetu eta kudeatzea izango da.

Tratamenduaren legitimotasun oinarria izango da Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrak (DBEO) 6.1.e) artikuluan xedatutakoa: tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo dagozkion eskabide inprimakietan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatutako informazioa entregatzea derrigorrezkoa izango da eta informazio hori ez emateak edo datu okerrak emateak eskabidea kudeatzea galaraziko du.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak, egokia denean, laguntzen finantzaketan parte hartzen duten eta/edo Donostia Sustapenarekin laguntzak kudeatzeko lankidetzan aritzen diren beste erakunde nazional edo nazioz gaindiko erakunde batzuei lagatzea gerta liteke, betiere lagapen hori beharrezkoa bada eta laguntzak kudeatzeko helburuetarako soilik.

Halaber, jakinarazten da laguntza emateak onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea ekarriko duela, datu horiek, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko baitira.

Ez da aurreikusi hirugarrenei zuzendutako datuen komunikazio gehigarririk, legezko betebeharririk izan ezean, ez eta datuen nazioarteko transferentziarik ere.

Tratamendu honen objektua diren datu pertsonalak gordeko dira jaso ziren xedea betetzeko beharrezkoa den denboran zehar eta xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizun posibleak argitzeko beharrezkoa den denboran zehar. Artxiboen eta dokumentazioaren araudian xedatutakoa aplikagarria izango da.

Interesdunek atzipen, zuzenketa eta ezabaketa eskubideak baliatu ahalko dituzte, indarrean dagoen datuen babeserako araudian aurreikusitako gainerako eskubideekin batera, hala dagokienean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuaren aurrean, helbide honetan: Ijentea kalea 1, 20003 Donostia / San Sebastián.

Norberari dagozkion eskubideak baliatzean behar bezalako arreta ez jasotzekotan, erreklamazio bat aurkeztu ahalko da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua - 01008 Gasteiz. Hala ere, aldeztatik eta hautazko moduan, Donostiako Datuen Babeserako Ordezkariekin harremanetan jartzeko aukera izango du interesdunak: dbo@donostia.eus.

18. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onarpena.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira eta argitalpen horren hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Interesdunek, eskabidea aurkeztean, erabat onartuko dituzte Oinarriak.

Erantzukizunak baztertzea

Onuraduna izango da laguntzaren objektua den jarduera egin aurretik edo ondoren izandako jarduketan ondorioz edo jardueraren ondorioz eragindako kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra eta Donostia Sustapena kontzeptu hauen gaineko erantzukizun orotatik libre utziko du.

19. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Emandako laguntzak Oinarri hauetan ezarritakoaren arabera arautuko dira eta, modu osagarrian, DLOan eta DLOaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak (aurrerantzean, DLOE) onartutako garapen erregelamenduan xedatutako

arauen arabera, baina bakarrik DLOan ezarritako kudeaketa printzipioei eta bere 20. artikuluan aipatutako informazio printzipioei dagokienez; hori guztia aplikazio hori ezartzen duen DLOaren 3.2 artikuluko bigarren paragrafoaren arabera.

Gainerako kasuetan, aipatu DLO eta DLOE testuak aplikagarriak izango dira bakarrik Oinarri hauetan legezko testu horiek berariaz aipatzen diren alderdietarako.

Donostian, sinaduraren datan.

Iñigo Olaizola Arcaute

Donostia Sustapeneko zuzendari kudeatzailea